

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 500/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea uztailaren 28ko Kontseiluaren 352/2020 Erabakiaren bidez kontratazioak egiteko epearen luzapena, Arabako enpresetan kontratazioa sustatzeko laguntzen 2020ko ekitaldirako deialdiaren barruan

COVID-19 birusak eragindako pandemia egoerak eta osasun egoeraren ondorioz ezarritako alarma egoerak oso ondorio negatiboak izan dituzte Arabako Lurralde Historikoko enplegu mailan.

Egoera horri ahalik eta egokien aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiak Arabako enpresetan kontratazioa sustatzeko laguntzen deialdia onetsi zuen 2020ko ekitaldirako, Foru Gobernuaren Kontseiluaren uztailaren 28ko 352/2020 Erabakiaren bidez.

Deialdi horretan, 6. artikuluan zehazten zen diruz lagundu beharreko kontratazio mugaga-beak 2019ko urriaren 16tik 2020ko urriaren 31ra bitartean hasi behar zirela, biak barne, eta diruz lagundu beharreko aldi baterako kontratazioak, berriz, 2020ko ekainaren 21etik 2020ko urriaren 31ra bitartean, biak barne. Era berean, 2. artikuluan finkatzen zen aurrekontu transferentziak egin ahal izango zirela gerogoko urtealdietara, ordainketen plangintza aurkeztutako eskaerei egokitzeko.

Gaur egun enpresek eta, oro har, biztanleek ez dakite noiz amaituko den egungo osasun krisia, eta horrek ez du laguntzen Arabako enpresek langabezian dauden pertsonak kontrata ditzaten.

Testuinguru horretan, eta gaur egun ekimena garatzeko aurrekontuko funtsak agortu ez direnez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak egokitzen jo du kontratazioak egiteko epea 2021eko uztailaren 31ra arte luzatzea, hori barne, aurrekontu kredituak beharizan berrietara birbanatuz eta egokituz.

Ahalik eta gehien zabaltzeko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun eta berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak behar bezala betetzeko, nahitaezkoa da epea luzatze hori babestuko duen araudia ezartzea.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hartutako

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea, eskuragarri dagoen aurrekontu esparruaren barruan, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 352/2020 Erabakian kontratazioak egiteko ezarritako epearen luzapena. Erabaki horren bidez, 2020ko kontratazioa lehia askearen bidez sustatzeko laguntzen deialdi publikoa onetsi zen, eta finkatu zen kontratazioak egiteko azken eguna 2021eko uztailaren 31 izango zela, egun hori barne.

Bigarrena. Aldatzea 2020ko kontratazioa sustatzeko laguntzen deialdi publikoa onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 352/2020 Erabakiaren I. eranskineko artikulua jakin batzuk, hain zuzen, I. eranskinean azaltzen direnak. Bertan jasotakoaren arabera geratzen dira.

Hirugarrena. 2020ko azaroaren 2ko 14:00ak arte onartutako eta aurkeztutako kontratu mugagabeei dagozkien eta ordaindu gabe dagoen gainerako ehuneko 30eko ordainketa betebeharraren aitortpenak eta 2020ko azaroaren 2ko 14:00etatik aurrera aurkeztutako eskaerei dagozkien dirulaguntzen zenbateko osoa 20.3.21.30.5.02.35.00.470.00.02 konpromiso kredituaren kargura esleituko dira, 615.000,00 euroko zenbatekoarekin.

Era berean, aurrekontu transferentziak egin ahal izango dira geroagoko urtealdietara, ordaintzen plangintza aurkeztutako eskaerei egokitzeko.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS

I. ERANSKINA

KONTRATAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

352/2020 ERABAKIAREN I. ERANSKINEKO ARTIKULU JAKIN BATZUEN ALDAKETA

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehienezko guztizko zenbatekoa

2.1 Ebazpen honek arautzen dituen eta 2020ko azaroaren 2ko 14:00ak arte aurkeztutako dirulaguntzak 2020ko aurrekontuko 30.5.02.35.00.462.90.01 aurrekontu partidaren kontura esleituko dira, zeina 385.000,00 euroz horniturik baitago eta zorpekin erreferentzia 105.2651/000 baitu. Lanbidek Arabako Foru Aldundiari emandako dirulaguntzatik datoz funtsak.

2020ko azaroaren 2ko 14:00ak arte onartutako eta aurkeztutako kontratu mugagabeei dagozkien eta ordaindu gabe dagoen gainerako ehuneko 30eko ordainketa betebeharraren aitortpenak eta 2020ko azaroaren 2ko 14:00etatik aurrera aurkeztutako dirulaguntzak 20.3.21.30.5.02.35.00.470.00.02 konpromiso kredituaren kargura esleituko dira, 615.000,00 euroko zenbatekoarekin. Esleipen horri dagokionez, lehentasuna izango dute gainerako ehuneko 30ari dagozkion ordaintzeko betebeharraren aitortpenek, ordaindu gabe 2020ko azaroaren 2ko 14:00ak arte onartu eta aurkeztutako kontratu mugagabeei dagokienez.

Era berean, aurrekontu transferentziak egin ahal izango dira geroagoko urtealdietara, ordaintzen plangintza aurkeztutako eskaerei egokitzeko.

6. artikulua. Kontratazioak egiteko epea

Diruz lagundu daitezkeen kontratazio mugagabeak 2019ko urriaren 16tik 2021eko uztailaren 31ra bitartean hasi beharko dira, bi egun horiek barne.

Diruz lagundu daitezkeen aldi baterako kontratazioak 2020ko ekainaren 21etik (osasuneko alarma egoeraren amaiera) 2021eko uztailaren 31ra bitartean hasi beharko dira, bi egun horiek barne.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epeak eta modua

10.1. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauek indarrean jartzen direnean hasiko da eta 2021eko abuztuaren 2a, 14:00etan bukatuko.

12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

12.2. Kontratu mugagabeen dirulaguntzetan, ebazpena onestean egingo da dirulaguntzaren ehuneko 70aren lehenengo ordainketa, justifikatu behar den aurrerakin gisa.

Gainerako ehuneko 30a ordainduko da enpresa onuradunak 12.5 puntuan zehaztutako justifikazio dokumentuak entregatu ondoren. Zenbateko horien betebeharraren aitortpenak 20.3.21.30.5.02.35.00.470.00.02 konpromiso kredituaren kontura egingo dira.

Justifikazioko kontabilitate dokumentua egingo da Arabako Foru Aldundiak PFEZaren kasuan kasuko atxikipenen diru sarrerak egiaztatu ondoren.

12.5 Arabako Foru Aldundiak ordaindutako dirulaguntza justifikatuzat jotzeko, eta kontratu mugagabeen kasuan gainerako ehuneko 30a ordaintzeko, erakunde onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– Nominen kopiak (kontratu bukaerako kalte-ordainak barne, halakorik izanez gero) 12 hilabeteko edo hortik beherako kontratuen kasuan, eta diruz lagundutako kontratazioaren osteko 12 hilabeteetakoak iraupen handiagoko kontratuen edo kontratu mugagabeen kasuan. Ordezkapen bat egonez gero, hileko horiek kontratatutako lehen pertsonaren eta ordezkoaren nominekin osatuko dira. Era berean, eta ERTEak eragindako langileen kontratu mugagabeen kasuan, lehenago ezarritako 12 hilabeteko aldia gehitu egingo da langilea ERTEen egon den denborarekin.

– Aipatutako nominen ordainagiriak (transferentzia egin duen bankuaren zigilua daramaten banku transferentziak).

– Langileen izen zerrenda eta kotizazioen likidazioen zerrenda, erakunde finantzarioaren balidazio zigiluarekin, edo kotizazioen ordainketen jatorrizko bankuko kontu laburpena. Kontratuak iraun duen hilabetei dagozkien agiri horiek guztiak, 12 hilabeteko edo hortik beherako kontratuen kasuan edo dagokion aldia, eta kontratazioaren osteko 12 hilabeteetakoak edo dagokion aldiaren kasuan iraupen handiagoko kontratuen edo kontratu mugagabeen kasuan.

– Diruz lagunduta kontratatutako pertsonaren lan-bizitza eguneratuaren kopia.

– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopiak jatorrizko dokumentuekin bat datozela adierazten duena.

Hauexek dira dokumentazio hori aurkezteko datak:

– 2021eko abenduaren 17ko 14:00ak, 2020ko azaroaren 2ko 14:00ak baino lehen aurkeztutako eskaeren dirulaguntzetarako.

– 2022ko irailaren 16ko 14:00ak, 2020ko azaroaren 2ko 14:00ak eta gero aurkeztutako eskaeren dirulaguntzetarako.